



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko ekainaren 3a

60 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako 2003-2006 urteetako Estatistika Planari buruzkoa (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzekoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (8. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (9. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako aurrezki kutxen zuzendaritza organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (9. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Leitzako Maxurrenea etxea ongintza- edo irakaskuntza-zereginetarako erabil dezan, Foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztua (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak eskatzen du Maxurrenea etxea Leitzako Udalarri lagatzea eta kultur etxe izateko eralda dadila, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du eskubide eta askatasunen defentsa bermatu egin behar dela, Foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztua (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, nazioko Gobernua premiatzen da lan arloko babes sistemaren aldaketa erretira dezan, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eguzki energia termiko eta fotovoltaikoa susta dezan, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laneko jazarpen psikologikoaren aurkako plan bat presta dezan, Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordean izapidatzea (16. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du enpresa pribatuekin hitzarmen bakarra sina dezan ezgaituen zentro publiko hitzartuetarako, Gizarte Gaietako Batzordeak onetsia (16. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Corellako haurtzaindegiko postu-kopurua handitzeari buruzko galdera, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Kultura Zuzendaritza Nagusiak Gazteluko Plazako indusketa arkeologikoari buruz emandako ebazpenei buruzkoa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak egina (18. or.).
- Galdera, Gazteluko Plazan aurkituriko hondakin arkeologikorik gehienak desmuntatzeari buruzkoa, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak egina (19. or.).
- Galdera, eremu ez-euskalduneko herri batzuetan eskola-garraioa kentzeari buruzkoa, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak egina (20. or.).
- Galdera, Ega ibaiaren ekosisteman presa artifizial bat egitearen ondorioei buruzkoa, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak egina (20. or.).
- Galdera, krisian dauden enpresak salbatu eta berregituratzeko laguntzei buruzko Foru Legea oinarri hartuta eman diren dirulaguntza eta abalei buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina (21. or.).
- Galdera, ikerketarako eman diren dirulaguntza eta diru aurrerakinei buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina (22. or.).
- Galdera, iruzur fiskalari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina (22. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako 2003-2006 urteetako Estatistika Planari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2002ko maiatzaren 20an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako 2003-2006 urteetako Estatistika Planari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Nafarroako 2003-2006 urteetako Estatistika Planari buruzko Foru Lege proiektua ohiko prozeduraz bideratzea.

2.- Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen esku uztea.

3.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea irekiko da, 2002ko ekainaren 21eko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proiektua, Nafarroako 2003-2006 urteetako Estatistika Planari buruzkoa

Nafarroako estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legeak Nafarroan estatistika jarduera arautzen duen lege barrutia ezarri zen, Foru Komunitateko errealitate sozial, ekonomiko eta demografikoari buruz behar adina informazio, fidagarria eta alderagarria, edukitzeko helburuarekin.

Lege testu horrek berak arautzen ditu datuak eman eta informazioa erabiltzen dutenen eta estatistika jarduera garatu eta betetzen duen organoaren arteko harremanak, eta datuak eman beharra, emaitzen argitalpena eta zabalkunde egokia eta sekretu estatistikoa izatea ezartzen ditu. Era berean, Estatistika Plana estatistika jarduera sustatu, antolatu eta planifikatzeko tresna egokitzat hartzen du. Jarduera hori Nafarroako Estatistika Sistemak beteko du.

Ondoren, ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legean xedaturikoa garatuz, Nafarroako 1999-2002 urteetako Estatistika Planari buruzko Foru Legea onetsi zen. Horrek, plangintzarako lehenbiziko saioa baitzen, Foru Komunitateko estatistika bideratzen zuen. Aldez aurretik helburuak zehaztu eta erakunde publikoek eta gizartearen eragileek erabakiak hartzeko lehentasunei buruzko arauak eman zituen. Sistema hau sendotuz joan da, bertan aurreikusten ziren urtean urteko estatistika programen bidez.

Aurreko planaren indarraldia agortu denez, beste bat onetsi beharra dago, Nafarroako 2003-2006 urteetako Estatistika Planari buruzko Foru Lege honen bidez.

Lege testu honek aipatutako ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legean ezarritako aurreikuspenak garatzen ditu eta, halaber, Nafarroako 2003-2006 lau urteko Estatistika Planaren helburua ezartzen du, alegia, erakunde publikoei, gizartearen eragi-

leei eta oro har herritarrei Nafarroako populazioa, gizartea, ekonomia, hauteskundeak eta ingurumena hobeki ezagutu eta aztertzeke behar adina argibide eman (ahal denean gizonak eta emakumeak bereizirik) eta erabakiak hartzeko baldintzarriak izanen zaizkien estatistika jarduerak egitea, honako abiapuntu hauekin: ahal den kosturik txikiena eta dauden iturrien probetxamendu handiena, bikoiztasunak saihestuz, herritar, enpresa eta erakundeendako ahalik eta traba gutxien sortuz eta sekretu estatistikoa bermatuz.

Horrez gain, foru lege honek Nafarroako Gobernuaren eta entitate publiko zein nazioarteko erakundeen arteko lankidetzatza instituzionalaren harremanak ezartzen ditu, bai eta Nafarroako Estatistika Erakundeak Plan hau betetzen izanen dituen eginkizunak ere.

Azkenik, Foru Agindu honen eranskinetan ageri diren eragiketa estatistikoen inbentarioa (I. eranskina), Nafarroako Gobernuko Departamentuek sailkaturiko eragiketa estatistikoen inbentarioa (II. eranskina) eta eragiketa estatistiko bakoitzeko fitxa laburtuak (III. eranskina).

I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Nafarroako 2003-2006 lau urteko Estatistika Planak, foru lege honek onesten duenak, Nafarroako Foru Komunitateko estatistika jarduera sustatu, antolatu eta planifikatzeko tresna den aldetik, lankidetzatza instituzionalaren barrutia zehazten du, zehazki Nafarroako Gobernuaren eta honako hauen artean:

- a) Haren erakunde eta enpresak.
- b) Entitate publikoak.
- c) Erakunde nazionalak eta nazioartekoak.

Lankidetzatza horren xedea da Nafarroako Estatistika Sistema, bere inguruko sistemakiko, koherentzia, homogeneousutasuna eta alderagarritasuna lortzen joatea.

2. artikulua. Nafarroako 2003-2006 lau urteko Estatistika Planak, Arau honetan bildutakoak, indarra izanen du 2003ko urtarrilaren 1etik 2006ko abenduaren 31ra bitarte. Hala ere, plana hurrengoak indarra hartu arte luzatuko da, besterik onetsi ez bada, hau irautitzean, salbu eta ezarritako epe edo aldien arabera baztertu behar diren eragiketetan.

3. artikulua. 1. artikuluko a) letran aipatutako entitateek Plan honek eta berau garatzen duten estatistikarako urtean urteko programek haien

esku utzitako estatistikak prestatuko dituzte, zuzenean edo beste entitate batzuekin elkarlanean.

4. artikulua. Nafarroako Estatistika Erakundeak Estatistika Plana eta estatistikarako urtean urteko programak bultzatuko ditu eta helburu horrekin honako eginkizun hauek beteko:

a) Estatistikarako urtean urteko programarako proiektuak prestatu eta horien izapidaketa eta onespena bultzatzea.

b) Nafarroako Administrazio Publikoek Estatistika Planak eta estatistikarako urtean urteko programek haien esku utzitako estatistika eragiketarako behar dituzten aholkularitza teknikoko zerbitzuak ematea.

c) Foru lege honek eta berau garatzen duten estatistikarako urtean urteko programek haren esku utzitako estatistika jarduera instrumentalak egin edo proposatzea.

d) Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legeak estatistikak erregulatzeko aurreikusten dituen arau teknikoak proiektuak, Estatistika Planak eta berau garatzeko emandako estatistikarako urtean urteko programek haren esku utzitakoak, prestatu eta horien izapidaketa eta onespena bultzatzea.

e) Nafarroako Administrazio Publikoek, Estatistika Planak eta estatistikarako urtean urteko programek haien esku utzitako estatistikak estatistikari buruzko legeak betez prestatzen dutela zaintzea.

f) Nafarroan, informazio eta dokumentazio estatistikoaren inbentarioa egin eta haren mantentimendua egitea.

g) Nafarroako Estatistika Planean sartuta dauden estatistiken jarraipena egitea.

h) Estatistikaren arloan behar diren harremanak sustatzea foru lege honen 1. artikuluan aipatzen diren entitateekin.

5. artikulua. Foru lege honen ondorioetarako, estatistikako jardueratzat hartuko dira:

a) Estatistikak egiteko datuak, kopuruari zein kalitateari begira, bildu, lortu, tratatu eta gordetzea, emaitzak argitaratu eta zabaltzea eta antzeko izaera duen beste edozein, Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 1. artikuluan ezarritakoarekin bat.

b) Aurreko letran zehaztutako aurretikoak edo osagarriak diren jarduera instrumentalak, legeak eska ditzakeenak edo teknikoki beharrezkoak direnak estatistikaren arloko legediak ezartzen duena bete ahal izateko, hau da, estatistika-

ren arloko prestakuntza espezifikoagokoak, ikerketa eta teknika, metodologia eta arauen garapeneko jarduerak.

II. KAPITULUA Estatistika Planaren egitura

6. artikulua. Estatistika lana, haren ardura zer Departamentuk edo erakundek duen, horren araberako antolatua dago.

7. artikulua. Estatistiken sailkapena:

- a) Estatistika sendotuak.
- b) Proiektatutako estatistikak.
- c) Direktorioak, erregistroak eta inbentarioak.

8. artikulua. Estatistika sendotuak errealitatea ezagutzeko balio dutela eta erabilgarriak direla frogatu eta sail estatistiko bat sortzen duen aldiaren aldiko jardura osatzen dutenak dira, aurreko planetako eragiketen helburuak eta hurrengo saioetakoak garatu ondorengoak.

9. artikulua. Proiektatutako estatistikak eragiketako helburu berriak osatzen dituztenak dira, alegia, interesgarriak izateagatik eta planaren helburu nagusiarekin bat etortzeagatik planaren indaraldian hasi behar dutenak.

10. artikulua. Direktorioa, erregistroa eta inbentarioa unitate estatistikoak identifikatu, atzeman eta sailkatzeko oinarritzko tresna estatistikoak dira. Errealitatearen alderdiren bat ezagutzeko aldiaren aldiko eta unean uneko errolda, inkesta eta estatistikak egiteko balio dute. Gainera, haien oinarritzko unitateen mota, izaera juridikoa, kokagunea eta bestelako ezagurrien gaineko funtsezko argibideak ematen dituzte.

III. KAPITULUA Estatistika Planaren Helburuak

11. artikulua. Nafarroako 2003-2006 lau urteko Estatistika Planaren helburu orokorra datu estatistiko multzo koherente, fidagarri eta eguneratua lortzea da, ahal den kosturik txikienarekin, dauden iturrien ahalik eta probetxamendu handienarekin eta bikoiztasunik gertatu gabe, Nafarroako errealitatea, ekonomia, demografia, gizarte, ingurumen eta lurraldearen esparruetan (ahal denean, gizonak eta emakumeak bereizirik), ezagutzeko bide emanen duena eta erakunde publikoetako eta gizartearen eragileetako baliagarria izanena zaiena erabakiak hartzeko, hori guztia herritarrei ahal den traba gutxien sortuz eta sekretu estatistikoak bermatuz.

12. artikulua. Aurreko artikuluan ezarritako helburu orokorra funtsezko eta oinarritzko irizpidea izanen da Estatistika Plana betetzean esku hartzen duten organo guztiendako erabakiak hartzerakoan, eta foru lege honen eta berau bete eta garatzeko ematen diren xedapenen interpretaziorako irizpidetzat hartuko da.

13. artikulua. Helburu orokorra erdiesteko, informazioko helburu berariazkoak, antolamendukoak eta instrumental berariazkoak ezartzen dira.

a) Informazioko helburu berariazkoak datu eta emaitza estatistikoaren beharrik betetzekoak dira.

b) Antolamenduko helburuak Administrazio Publikoaren baliabide eta argibideak zentzuz erabiltzekoak dira.

c) Helburu instrumental berariazkoak estatistika egiteko behar diren normalkuntza eta prozedura metodologikoak garatzekoak dira.

14. artikulua. Informazioari dagokionez, hauek dira helburu berariazkoak:

a) Informazio ekonomikoa handitzea, bilakaera ekonomikoaren jarraipen zehatz eta eguneratua ezarri ahal izateko, lan merkatua eta ekoizpen jarduna hobeki ezagutzeko bide emanen duten estatistiken bitartez.

b) Demografian eta honek beste arloekin duen loturan sakontzea, bereziki lan merkatuari, langileen prestakuntzari, osasunaren arloko plangintzari eta bizilagunen ongizateari dagokienez.

c) Estatistika sozialak sustatzea, eta halaber, bizilagunen bizi kalitatean eragina duten alderdiak hobeki ezagutzen laguntzen duten adierazleak.

d) Ingurumenaren arloko estatistikak garatzea, natur baliabideen egoera, ingurumenaren bilakaera eta bestelako fenomeno ekonomiko eta sozialekin duen lotura zehatz-mehatz ezagutzea lortzeko.

15. artikulua. Honako hauek dira antolamenduko helburu berariazkoak:

a) Nafarroako Estatistika Sistemaren artikulazioa sendotzea honakoak bermatzeko: intimitatea gordetzea, sekretu estatistikoak, egindako estatistiken zehaztasuna eta zuzentasun teknikoa, emaitzen zabalkundea eta segurtasuna informazioa gorde eta ematean.

b) Nafarroako Estatistika Sistemaren eta Estatu, Europako Batasuneko eta autonomi erkidegoetako sistemen arteko lankidetzaren instituzionalaren alde egitea, dauden iturrietan baliatu, alderdi guztien intereseko proiektuak egin eta baliabideak aurreztu ahal izateko, bai eta herritarrei eta enpre-

sei informazio eskaerak behin baino gehiagotan ez luzatzeko.

16. artikulua. Helburu berariazko instrumentalak hauexek dira:

a) Informazio estatistikoa zabaltzeko bideak bultzatzea, Nafarroako estatistika zabalkunderako sistema integratua ezartzeko bide eman eta erabiltzaileek informazioa eskura izatea erraz dezauten.

b) Nafarroako estatistika publikoaren arloko prestakuntza berariazkorako eta hobekuntzarako behar diren jarduerak betetzea, Nafarroako Estatistika Sistemari sartuta dauden langileei, bai eta beste profesional eta erabiltzaileei ere, metodo, teknika eta iturri estatistikoak hobeki ezagutzeko aukera eman diezaien.

c) Estatistikaren arloko ikerketa sustatzea, alderdi metodologikoetan eta Foru Komunitatearentzat interesa duten gaiei aplikatutakoetan, Nafarroako errealitatea, ekonomia, demografia, gizartea, ingurumenari eta lurraldeari dagokienez, hobeki ezagutzen laguntzeko.

d) Nafarroako Estatistika Sistemak emandako informazioaren normalizazioa, homogeneotasuna eta alderagarritasuna, Estatuko eta Europako sistemarekiko, sustatzea.

e) Nafarroako informazio estatistikoaren lurralde erreferentziazioa garatzea.

IV. KAPITULUA **Estatistika Planaren garapena**

17. artikulua. Informazioko helburu berariazkoak estatistikarako urtean urteko programen bidez garatuko dira. Programa horiek zehaztuko dituzte urte bakoitzean egin beharreko jarduerak.

:p.Helburu instrumental berariazkoak horretarako onetsiko diren programen bidez garatuko dira.

18. artikulua. 1. Salbuespen gisa, eta sartzen diren programan kokatzeko arrazoiak azalduz, Planean agertzen ez diren eragiketak sartu ahal izanen dira estatistikarako urtean urteko programetan, beti ere baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Nafarroako Estatistika Planaren helburuetarako egokiak izatea.

b) Haien funtsezko osagaiak, bereziki Nafarroako estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 27.2b artikuluan aurreikusitako zehaztapenak, agertzen dituen oinarriko

proiektu tekniko bat izatea, bete beharreko jarduerak estatistikoen fidagarritasuna bermatzeko.

c) Aplikatzekoak diren zehaztapen teknikoetara lotzea.

d) Haren metodologiatik emaitza fidagarriak eta beste estatistika batzuekiko alderagarriak lortzeko bide ematea.

e) Bidezkoa den kasuetan, aldizka eguneratze-ko aukera ematea.

f) Teknikoki erabili ahal den lurralde bereizketa handienarekin egitea, hori erabilgarritzat jotzen denean.

g) Emaitzak zabaltzeko modua aurreikustea.

2. Estatistika jarduera horiek Estatistikako Urteko Planetan sartu eta burutuko dira, beti ere aurrekontu eta antolaketako baldintzen arabera.

3. Plana garatuko duten estatistikarako urtean urteko programetan zehaztuko da zein diren estatistika jarduera sendotuen kalifikazioa izanen dutenak, hurrengo Programetan mantentzeko. Estatistika sendotuztat hartuko da errealitatea ezagutzeko balioa eta erabilgarritasuna dituela erakusten duena, estatistikako serie bat sortzen duen aldizkako jarduera izanik.

Estatistikako jarduerak sendotuen kalifikazioa harturik, artikuluko honen 1. zenbakian ezarritako baldintzak betetzen dituela ulertuko da, hurrengo programetan sartzeko ondorioetarako.

4. estatistikarako urtean urteko programetan sartutako estatistika jarduerak Nafarroako Foru Komunitateko estatistika ofizialak izanen dira, eta horiek prestatzeko eskatzen diren datuak ematea nahitaezkoa izanen da, Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 23. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

19. artikulua. Nafarroako Estatistikari buruzko ekainaren 27ko 11/1997 Foru Legearen 28.1 artikuluan aurreikusitakoaren babesean egindako eragiketa estatistikoek aurreko artikuluan araututako eragiketei eskatzen zaizkien baldintzak bete beharko dituzte.

20. artikulua. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Estatistika Kontseiluaren txostena eskuratu ondoren, estatistikarako urtean urteko programa onetsiko du Programaren urtearen aurreko abenduaren 31 baino lehen.

:p.Estatistikarako urtean urteko programaren indarraldia urte naturalarena izanen da, baina luzatu ahal izanen da hurrengo onetsi bitartean, haien izaera dela-eta jarraipena beharrezkoa duten jardueren kasuan.

21. artikulua. Nafarroako Estatistika Erakundeak estatistikarako urtean urteko programa bakoitzaren jarraipen txostena eginen du Nafarroako Gobernuak onets dezan, bidezko baldin bada.

Era berean, Nafarroako 2003-2006 lau urteko Estatistika Planaren ebaluazio proposamena egiten du, hura amaitu ondoren, Nafarroako Gobernuak onets dezan.

Agiri hauek alde zuzenetik jakinaraziko zaizkio Nafarroako Estatistika Kontseiluari.

22. artikulua. Nafarroako Estatistika Erakundeak estatistikari buruzko arauak begiratu behar ditu, bereziki Estatistika Planean ageri direnak eta hauek garatzen dituztenak. Begiratu behar hori betearazteko, Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio Erakundeari ahalmena eman diezaien Planeko estatistikak ikuska ditzan.

V. KAPITULUA

Lankidetzaren instituzionala

23. artikulua. Entitate laguntzaileak izanen dira Ekonomi eta Ogasun Departamentuarekin bi alderdien intereseko helburuetarako hitzarmenak izenpetzen dituztenak.

Aipatutako Departamentuak, Nafarroako Estatistika Erakundearen bidez, eta entitate laguntzaileek beren intereseko informazio estatistikoa luzatuko diote elkarri, bai eta estatistikak prestatzeko behar den aholku teknikoa emanen ere.

24. artikulua. Nafarroako Estatistika Erakundeak estatistika jarduerak betetzen dituzten entitate edo erakunde mota guztiei zuzendu ahal izanen zaie, interesgarria deritzon, Nafarroako 2003-2006 lau urteko Estatistika Planean ezarritako helburuen kudeaketaren ondorioetarako, ez besterik.

25. artikulua. Nafarroako Gobernuak, lankidetzaren hitzarmenak egin ahal izanen ditu doakien estatu-erakundeekin, gure Komunitatean hartutako laginak hobetu ahal izateko; haien banakinetan ateratzen diren estatistikaren adierazgarritasuna egokituko den, Nafarroari buruzko ustiapen osoak ahalbidetzeko moduan.

26. artikulua. Ekonomi eta Ogasun Departamentuak lankidetzaren teknikorako akordioak izenpetu ahal izanen ditu 24. artikuluan aipatzen diren entitate eta erakundeekin.

VI. KAPITULUA

Emaitza estatistikoen zabalkundea

27. artikulua. Estatistika Planaren helburu nagusia estatistikaren emaitzak zabaltzea da, betie-

re sekretu estatistikoa gordeta. Horretarako, datuen gaurkotetasuna eta zabalkundearen lastertasuna hartuko dira kontuan. Informazioko teknologia berriak lehenetsiko dira.

28. artikulua. Emaitza estatistikoak hiru motakoak izan daitezke:

a) Emaitza sintetikoak. Gaika lortu eta lurraldean arabera antolatu diren orotariko emaitzak laburtzen dituzte.

b) Oinarrizko emaitzak. Orotariko emaitzak modu estandarrean erabiliz lortzen dira. Haien helburua taula gurutzatuak lortzea da, estatistikarako urtean urteko programetan xedatu bezala, kontzeptu, lurralde eta epeen arabera sailkatuta.

c) Emaitza berariazkoak. Haien xedea ustiapen estandarizatugabeak edo informazio estatistikorako sarbide berariazkoak lortzea da, sekretu estatistikoa gordeta.

29. artikulua. 1. Nafarroarendako interesgarriak diren estatistiketan emaitza sintetikoak gutxienez ere zabalkunde handiko eta sarbide libreko hedabide batean argitaratu beharko dira, hala nola, interneten. Gainera, Nafarroako Estatistika Erakundearen izenen dira eskuragarri, pertsona eta instituzio guztiek dohainik erabili ahal dituztenak.

2. Oinarrizko emaitzak eta emaitza berariazkoen ustiapena erabili ahal izateko Nafarroako Estatistika Erakundera edo eragiketa estatistikoko bakoitzak sortzen duen Departamentuko Idazkaritza Teknikora jo beharko da.

30. artikulua. 1. Nafarroako Estatistika Erakundeak Estatistika Planeko eta estatistikarako urtean urteko programetako estatistiketak emaitzak eskura eduki, zabaltu eta argitaratu beharko ditu.

2. Nafarroako Estatistika Erakundeak Nafarroako Estatistika Sistemako beste erakunde eta organoei erraztasunak emanen dizkie, nahi badute, Erakundearen webgunean Nafarroarendako interesagarriak diren estatistiketako emaitzak sar ditzaten, bai zuzenean, bai beste webguneekiko loturen bidez.

Xedapen gehigarria

Nafarroako Gobernuak foru lege honek indarra hartu eta hiru hilabeteko epean, gehienez ere, onetsiko du 2003. urteko Estatistika Programa.

Xedapen indargabetzailea

Nafarroako 1999-2002 urteetako Estatistika Planari buruzko azaroaren 19ko 15/1998 Foru

Legea eta foru lege honetan aurreikusitakoaren kontra doazen maila bereko edo txikiagoko xedapen oro indarrrik gabe gelditzen dira.

Azken xedapena

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege honetan aurreikusitakoa garatu eta betearazteko behar diren xedapenak eman ditzan.

Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzekoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1.- Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko irailaren 3ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu Foru Lege proiektua

2002ko maiatzaren 27ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1.- Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuari eta Administrazioari buruzko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko irailaren 3ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu Foru Lege proposamena 2002ko otsailaren

7ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Nafarroako aurrezki kutxen zuzendaritza organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzekoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1.- Nafarroako aurrezki kutxen zuzendaritza organoei buruzko apirilaren 21eko 7/1987 Foru Legea hein batean aldatzeko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko irailaren 3ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea.

Aipatu Foru Lege proposamena 2002ko otsailaren 7ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Leitzako Maxurrenea etxea ongintza- edo irakaskuntza-zereginetarako erabil dezan

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNANDEZ DE BARRENA JAUNAK AURKEZTUA

Foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Leitzako Maxurrenea etxea ongintza- edo irakaskuntza-zereginetarako erabil dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrenak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko aurkeztu du ondoko

Mila bederatziehun eta hirurogeita hamabosteko apirilaren hogeita biau formalizatu zen Iruñeko notario Joaquín E. Pérez Realen aurrean Leitzako herriko hainbat higiezinen dohaintza, José Perurena Elola jaunak eta Victoria Larrat Tanco andreak Amazabal Fundazioaren alde egindakoa. Ongintzako fundazio horren alde dohaintzan emandako higiezinen artean Maxurrenea izeneko etxea zegoen –Iruñeko jabetzaren erregistroko 1497. liburukiko 163. folioan izena emanda dagoena–.

Leitzako industria-eskola profesionaleko edo Amazabal Fundazioak egoki iritzitako beste edozeinekoko ikasleentzako etxe-eskola, barnetegi nahiz egoitza bertan jartzeko erabili behar ziren finkak.

Itzultze-klausula bat ere ezarri zen, eta horren arabera, hartzaileak –edo hartzaileek– irakaskuntzarako edo ongintza-hezkuntzako xedez erabili behar zituen finkak.

Arrazoi ekonomikoak direla medio –aurreko urteetan egindako ahalegin handiari ezin eutsiz–, Fundazioak akordioa lortu zuen orduko Nafarroako Foru Diputazioarekin, eta hala, 1978ko azaroaren 17an sinatutako eskritura publikoaren bitartez, Diputazioari laga zion etxearen jabetza, baldintza bakarrarekin; alegia, Leitzako industria-eskola profesionaleko edo Diputazioak egoki iritzitako beste edozeinetako ikasleentzako etxe-eskola edo barnetegi-egoitza bertan jartzeko erabiltzea etxea.

Diputazioak –Julio Iturralde Agorreta jauna izan zen haren ordezkari egintza hartan– lagapena onartu zuen, eta entitate lagatzailearen eskubide eta betebeharreran subrogatuta gelditu zen.

Gaur egun –orain dela zenbait urte L.H.ko ikasleen egoitza itxi zenetik hona–, Nafarroako Gobernuak irakasleen prestakuntza eta birziklape-neko zentro gisa erabiltzen da.

Etxea gutxi erabiltzen denez eta eskualdeko baliabideei ahalik eta etekinik handiena atera behar zaienez, Maxurrenea etxea herriaren eta eskualdearen garapen sozial eta kulturalerako tresna baliagarri bihurtu litekeela planteatu dute hainbat ahotsek, betiere dohaintzagileen borondatze errespetatuz.

Halatan, ikusita Leitzan bertan herri kiroleko kirolari gailen ugari dagoela eta horiek herri kirole-

tako museo aktibo bat abian jartzeko prest daudela, eta ikusita orobat bizirik dirauen ondarea balioesteak turismoan izan lezakeen eragina, Plazaolako Turismo Partzuergoa –eskualdeko udalekin eta bereziki Leitzako udalarekin batera– lanean aritu izan da asmo hori gauzatzeko. Lan horri esker, herri kirolen diaporama aurkeztu zuten orain lau urte, baina behar bezalako tokirik izan ez dutenez ezin izan dute inon kokatu.

Udalaren ordezkariak Parlamentuko Hezkuntza Batzordean egintzako agerraldian ezagutu ahal izan genuen zer urrats eman dituzten herriaren eskaerei erantzunez kultur azpiegituren eskasia betetzeko.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiaz du:

Lehendabizi.- Maxurrenea etxearen xedea bat etor dadin hura dohaintzan eman zutenen boron-

datearekin, eta hartara, ongintza-hezkuntzarako erabil dadin.

Bigarren.- Leitzako udalarekin negoziatioak has daitezten beharrezkoa den adostasuna lor dadin herri kirolen museo bizi eta kultur zentro gisa erabili ahal izateko.

Hirugarren.- Higiezinaren erabilerari buruzko negoziatioetan, herri kirolaren museoari begira, aintzat har dadin Plazaolako Partzuergoaren eta herri kirolaren aritzen diren bertako kirolarien ordezkarien parte-hartzea.

Laugarren.- Etxearen erabilera lagatzeko proiektua, Nafarroako Gobernuaren 2002ko otsailaren 4ko erabakiaren ondotik abiarazi zena, geldiaraz dezan.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 21ean

Foru parlamentaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak eskatzen du Maxurrenea etxea Leitzako Udalarari lagatzea eta kultur etxe izateko eralda dadila

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak eskatzen du Maxurrenea etxea Leitzako Udalarari lagatzea eta kultur etxe izateko eralda dadila".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Batasuna Talde Parlamentarioak, Ganbararen arautegiaren arabera, Hezkuntza eta Kultura Batzordean eztabaidatzeko hurrengo mozioa aurkezten du:

Justifikazioa:

Leitzako Udalarak, bere herriko eragile kulturaren babesa osoarekin, pasa den Maiatzaren 15an Parlamentuari egindako eskakizuna kontutan hartzen, gure talde parlamentarioak aurkezten du honako erabaki proposamena

Erabaki proposamena

1. Nafarroako Parlamentua Maxurrenea Etxearen donazioko baldintzetan, erabilerak hezkuntzarekin erlazionatuta egon behar zuela esaten duenez kontutan izanik, Maxurrenea Leitzako Udalarari zedi diezaioten eskatzea, bertan Kultur etxeaz

gain, Herri Kirol museoa kokatzeko. Maxurrenea, Leitzako kultura azpiegitura gabezia nabarmenarekin amaitzeko erabil dadila, Leitzako benetako beharretarako, alegia.

2. Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako Gobernuak 2002ko otsailaren 4an hartutako erabakiaren aurrean, atzera egin eta erabakia berehala bertan bera utz dezala eskatzen du.

3. Azkenik, Nafarroako Gobernuak hartutako erabakiak Leitzako herriaren interesen aurka jotzen duenez, Leitzako Udalak eta herritarrek Maxurreneako kultur etxearen alde gehiengoz erakutsitako jarrerarekin bat egitea.

Iruñean, 2002ko maiatzak 22

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du eskubide eta askatasunen defentsa bermatu egin behar dela

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du eskubide eta askatasunen defentsa bermatu egin behar dela".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnalek, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Osoko Bilkuran premiaz eztabaidatu eta bozkatzeko aurkeztu du ondoko mozioa.

Zioen azalpena

Gobernu zentralak Alderdi Politikoen Lege Organikoaren proiektua aurkeztu du Diputatuen Kongresuan. Haren helburu nagusia da bide ematea, une honetan, alderdi politiko jakin bat legez kanpo utzi ahal izateari, eta horretarako zehazgabetsun juridiko handiko jarrerak hartzen ditu

oinarri, murriztu egiten ditu defentsarako aukerak eta prozedura azkarra baliatzen du.

Lege proiektua "ad hoc" egina da, alderdien fenomeno orokorra arautzeko lege proiektua bainoago salbuespen egoeretakoa. Proiektu osoa dago emana alderdiak legez kanpo uzteko kasuak eta prozedurak arautzera, eta ia-ia ez ditu alderdien eskubideak arautzeari buruzko alde orokorrrak garatzen, ez baitu planteamentu orokorrik egiten gure sistema politikoan alderdiek izan beharreko zeregin nagusiari buruz.

Gizartearen edo politikaren ikuspuntutik salagarriak izan arren juridikoki zilegi diren jarrerren tipologia zabala egiten du Alderdi Popularreko gobernuak aurkeztu duen testuak. Lege proiektu honek saihestu egiten ditu legezketasunaren betekizunak eta baldintzak, proportzionaltasuna, atzeraeraginezintasuna eta tipikotasuna, eta bali-teke konstituzioaren hainbat printzipio –ideologia, adierazpen eta elkartzeko askatasuna, babes juridiko eraginkorrerako nahiz afera publikoetan parte hartzeko eskubidea eta toki entitateen autonomia bera ere–, eta horrek guztiak ikara eragiten dio gutxieneko sentsibilitate juridikoa duen edonori. Testua dagoen bezala, subjektibotasun muturrekoraino eramaten da artikuluetan jasotzen diren jarrerren estimazioa, eta horrek erabateko segurtasun juridiko eza dakar, alegia, arrisku nabarmena dago etorkizunean haiek era estentsiboan interpretatzeko, beste alderdi batzuei begira, alderdi politiko jakin bat legez kanpo uzteko aurrez ikusitako kasuak.

Hori dela-eta aurkeztu dugu ondoko erabaki proposamena:

"Nafarroako Legebiitzarrak,

1. Adierazten du, koherentzia demokratiko hutsez, oinarrizko eskubideak eta askatasunen defentsak erabatekoa behar duela izan, koherentea, eta eskubide eta askatasun horiek gizaki guztiei bermatu behar zaizkiela, eskubide eta askatasun horiek gozatuko dituen gizakia edo taldearekiko sinpatia edo iritzi politikoa alde batera utziaz.

2. Agirian uzten du ilegalizazio-prozesu horiek zinez garrantzitsuak diren eskubideak eta askatasunak eragin era urratzen dituztela. Izan ere, bere lehen Tituluko bigarren kapituluko lehenengo atalean estatu espainiarreko Konstituzioak bermatzen dituen ideologia-askatasuna, adierazpen askatasuna, elkartzeko eskubidea edota hiritarrentzako parte-hartze eskubideak kalteturik geratzen direla.

3. Baieztatzen du aipaturiko ilegalizazio-prozesuek, ikuspegi juridikotik ere, oinarri irristakorra dutela. Talde armatu batekiko laguntza edo pertenezia delituaren kasuan legeak berak aurreikusiten dituen gertakarietatik haratago iritsi nahi du egiten ari den interpretazioak, gizaki zehatzen aurka ez ezik eragile kolektiboen aurka egiten du eta, gainera, gure gizartean erabat sustraiturik dauden hautu ideologiko eta politiko eta adierazpen eta elkartzeko moduen aurka egiten du ere. Legea interpretatzeko modu hau ezin dugu inolara

ere gure egin eta, beraz, ilegalizazio-prozesu hauen aurkako gure erabateko ezadostasuna adierazi nahi dugu.

4. Bere kezka eta salaketa agertzen du testuinguru honetan indefentsioa sortzen ari delako, legearen interpretazioan zehaztugabetasuna agertzen delako eta honek, oinarrizko eskubideak eta askatasunen atalean, arbitrarietatea ekartzen duelako. Askatasunen atal honetan suertatzen den nahas-mahasa eta indefinizioak giza-eskubideen inguruko kultura erlatibista bultzatzen du, batez ere oihartzun handiko testuinguruan ematen delako, eta erlatibizazio hau biziki larria da gurea bezalako egoera soziopolitiko korapilatsuan.

5. Berretsi egiten du gertaera hauek eragin negatiboa dutela, era berean, gure gizartearen gehingoak babesten duen helburua gauzatzeko: elkarbizitza politiko baketsua, demokratikoa eta bere aniztasunaren adierazpenarentzako bermekin ahalbidetzea.

6. Gaitzetsi egiten ditu dagoeneko martxan dauden erakunde politikoak ilegalizatzeko ekimenak eta exijitzen du hauen gelditzea edo atzera ematea kasuan.

Iruñan, 2002ko maiatzaren 23an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Mozioa. Horren bidez, nazioko Gobernuak premiatzen da lan arloko babes sistemaren aldaketa erretira dezan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, nazioko Gobernuak premiatzen da lan arloko babes sistemaren aldaketa erretira dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du osoko bilkuran eztabaidatzeko. Honen bidez, nazioko Gobernuak premiatzen da lan arloko babes sistemaren aldaketa erretira dezan.

Zioen azalpena

Europako langabezia tasarik altuena duen herrialdea da Espainia, eta halere, gizarte babesarako diru gutxien erabiltzen duenetakoa da. Izan ere, INEMen milioi bat seiehun mila pertsonatik gora dago izena emanda, baina horietatik milioi bat ehun mila baino gutxi batzuk gehiagok jasotzen du langabezia-prestazioa, hau da, langabetuen % 44k ez du inolako prestazio ekonomikorik jasotzen. Prestazioa jasotzeko pribilegioa dute-

netan erdiek baino ez du sorospenerako eskubidea, hau da, hilean 55.000 pezeta (330 €) jasotzeko eskubidea. Horrela, bada, langileen kotizazioen bidez bildutakoarekin prestazio guztiak ordaindu ondotik, 600.000 milioi pezetako soberakina (3.600 milioi euro) gelditzen da, Estatuak azken urteotan beste politika batzuetara, eta are defizit publikoa itxuraldatzera ere, bideratu duena.

Gauzak horrela, aldaketa zentzuz eginez gero, enplegu gehiago eta hobe lortzeko eta langabezia-babesa handitzeko neurriak hartu beharko lirarteke. Gobernuak, aitzitik, langileen eskubideak –gaur egun lana dutenena nahiz langabezian daudenena– areago murrizten dituen aldaketa onetsi nahi du. Aldaketa horren azpian dagoen ideologik subjektu susmagarritzat jotzen du langabetua, errua hari egozten dio, nahiago duelakoan lanik egin ez eta langabezia-sorospena kobratu. Errealitatea, ordea, tematia denez, INEMek aztertutako eskaera-espeditenteen ehuneko 3k baino ez du irregulartasunik eta, aldiz, Lan Ikuskaritzak enpresetan eginiko kontrolek erakutsi dute aldi baterako kontratuen ehuneko 48 direla iruzurrezkoak.

Aldaketa honen aurka gaude, bidegabea dela eta ez duelako ezertarako ere balioko, ez delako hobetuko ez enplegua ez enpleguko zerbitzu publikoen funtzionamendua ere, eta gainera, gizarte-elkarrizketa hausten duelako. Aznarrek eta haren Gobernuak proposatutako aldaketaren bidez:

- Iraizpena merkeagoa eta errazagoa izanen da. Proposatutako neurriek murriztu egiten dituzte langileek gaur egun –iraizten dituztenetik epaileak irazpena bidegabea dela ezarri arte– aitortuak dituzten eskubideak, ondokoak besteak beste: bitarte horretako lansariak –tramitazio-lansaria esaten diotena–, lansari horien gaineko kotizazioak eta irazpenaren kalte-ordaina kalkulatzeko nahiz langabezia-prestazioa eskuratzeko denbora bera. Aitzitik, enpresaburuei egiten zaie mesede, zeren, tramitazio-lansariko 60 egun aurrezteaz gain (urtero 84.000 milioi pezeta inguru), hautamenez irazteko aukera handiagoa dute, eta Gobernuari ere egiten zaio mesede, zeren, epea 60 egunetik gorakoa denean nahitaez ordaindu behar duen tramitazio-lansaria ordaindu behar izan gabe gelditzen da.

- Murriztu egiten dira langabezia-prestazioak eta mugatu egiten da horiek eskuratzea. Hartara, laneratze kontratuek ez dute langabezia jasotzeko eskubidea sortuko; langabetu askori ez zaie utzi sorospena eskuratzeko, irazpenaren kalte-ordaina errenta gisa hartuko baita kontuan eta, etxebizitza, aldiz, nahiz eta txikia izan, ondare

gisa; aldizkako langile finkoei ukatu eginen zaie langabezia-babesa; atzerrian egindako lana sei hilabetetik sei urtera pasako da, Espainiara itzultzen diren etorkin espainiarrek sorospena jasotzeko eskubidea izan dezaten; eta aldatu eginen da langabetuek gaur egun duten eskubide bat; izan ere, egun, batean jaso dezakete kotizaziopeko prestazioa, baldin eta lan elkartuko kooperatiba edo lan-sozietate batean nork bere lana sortzeko bada, eta hemendik aurrera, horren ordez, Gizarte Segurantzako kuotetan hobariak aplikatzeko sistema bat ezarriko da, enplegua sustatzeko indarrean dagoen neurriak ezartzen duen hasierako inbertsiorako saria ezabatzen duena.

- Kendu egiten zaie sorospena Andaluziako eta Extremadurako nekazaritzako langileei. Sorospena ez da jada eskubide bat, eta soilik mantentzen da lehenago ere eskuratu dutenentzat, ez ordea lehen aldiz jaso behar dutenentzat. Horren ordez, produkzio-sektore horren lan-kolokatasuna dela eta eskuratzen ezinezkoa den kontribuzio-sistema bat sortzen da, sistema orokorrikiko diskriminatzailea.

- Enplegu eskaintzetarako baldintza eskumenekoagoak ezartzen dira. Prestazio hartzaileek nahitaez onartu behar dituzte lan eskaintzak, nahiz eta euren lanbidekoak ez izan eta nahiz eta 50 kilometrotara mugitu behar, eskainitako kontratuak aldi baterakoak edo/eta lanaldi partzialekoak izanda ere.

- Lansariak konpentsatzeko erabiltzen dira langabezia-prestazioak; izan ere, gizarte talde batzuentzat bateragarriak izanen dira kotizaziopeko prestazioak eta langabezia-sorospena kobratzea eta lan ordaindua egitea, lan merkatuan sartzea zail dutela erabakitzen den taldeentzat hain zuzen ere, eta horien artean aipatzen dira 52 urte-tik gorako langabetuak eta laneratze errenta aktiboak jasotzen dituztenak. Neurri horrek mesede egiten die, nabarmen gainera, enpresaburuei.

- Langabezia-babeseko sistema ez da jada eskubide bat, eta administrazioaren oparitzat hartzera pasa daiteke, administrazioaren jardueraren arabera.

- Bidegabeagoa izanen da errentaren birbanaketa. Enpresek 84.000 milioi pezeta aurreztuko dute tramitazio-lansaritan, lana duten langileek prestazioa ordaintzen jarraituko dute, soberakinak beste politika batzuetara bideratuko dira; eta hori dena gutxi balitz, iragarri duen aldaketaren ondorioz, errenta altuenengandik 500.000 milioi pezeta gutxiago bilduko du urtero Estatuak.

- Aznarrek gizarte-elkarrizketa hausten du, eta ez du betetzen erreforme elkarrizketaren eta

negoziazioaren bidez ekiteko konpromisoa. Hautsi egiten du gizarte-ituna, bizitza demokratikoaren oinarritzko balorea den hori.

Hori dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak nazioko Gobernua premiatzen du:

Lehendabizi.- Lan arloko babes sistemaren aldaketa erretira dezan, bidegabea delako eta ez

duelako ezertarako ere balioko, eta ez duelako hobetuko ez enplegua ez enpleguko zerbitzu publikoen funtzionamendua ere.

Bigarren.- Sindikatuekin negoziatzeari ekin diezaion, aldez aurreko baldintzarik gabe, Espainian gizarte-babesa eta enplegua hobetzeko bidean.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 24an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eguzki energia termiko eta fotovoltaikoa susta dezan

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eguzki energia termiko eta fotovoltaikoa susta dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko Eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, eguzkiko energia termikoa eta fotovoltaikoa sustatzeari buruzko mozio bat aurkeztu du, Parlamentuko Osoko Bilkurak eztabaidatu eta onetsi dezan.

Zioen azalpena

Espainian energia berriztagarriak sustatzeko planak hainbat neurri ezarri zituen eguzkiko energiaren garapenerako. Energia iturri hori gorpil zoro batean sarturik dago, haren errentagarritasun

ekonomikoa bermatzeko beharrezkoa delako eguzki panelen erabileraren eskaria handitzea. Ekipo horien ekoizpena sendotzen den heinean gutxituko dira eguzki energiaren kostuak eta, hartara, aplikazio handiagoa izanen du.

Energia iturri hori dagokionez, energia berriztagarriak sustatzeko planak planaren indarraldian erdietsi beharreko zenbait helburu aurreikusten du. Besteak beste, aurreikusirik dago eguzki energia termikoaren ekoizpena 200 megavatiokoa izatera iritsiko dela 2010.ean, eta fotovoltaikoarena, 1998an sortutakoa 8.7 megavatiokoa izan baitzen, 144 megavatiokoa izatea 2010.ean. Halaber, beste asmo bat da eguzki-atzitzailen azalera handitzea, egun Europako Batasuneko txikienetakoa baita —8,4 m²-koa mila biztanleko— 115 m²-koa izan dadin 2010ean.

Egun, eguzki energiak dakartzan kostuak, energetikoak zein materialenak, altuak dira. Gobernuak oztopo hori gainditu behar du elektrizitatea sortzeko iturri hori sustatuko duten erabakiak hartuz. Ildo horretan, planean ageri diren neurrietako bat da inbertsioei eta I+Geko programei laguntza publikoa ematea, batetik zelula fotoelektrikoen kalitatea hobetzeko eta bestetik, energia fotovoltaikoaren kit-ak estandarizatzeko. Horrez gain, aurreikusirik dago etxebizitzetan eta eraikinetan, publiko zein pribatuetan, energia iturri horren erabilera orokorra izan dadin bultzatu eta laguntza ematea.

Balitzeko laguntza publiko horiek energia berriztagarriak sustatzeko planean daude islaturik zerga pizgarri batzuen bidez.

Hori dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eguzki energia termiko eta fotovoltaikoa susta eta bultza dezan, inbertsioak lagunduko dituzten neuri fiskalen bitartez; eguzki instalazioak, horiek sareari lotzea eta etxebizitza

eta eraikinetan sartzeari erregulatuko dituzten arau izaerako neurriak; energia iturri berriztagarria horren hobekuntza teknologikoa bultzatuko duten sariak birbanatzea eta gehitzea; eta kontzientzia-zio kanpainak eta Administrazioaren ekintza eredugarriak gauzatzea.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 24an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laneko jazarpen psikologikoaren aurkako plan bat presta dezan

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO PUBLIKO ETA BARNE BATZORDEAN IZAPIDATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laneko jazarpen psikologikoaren aurkako plan bat presta dezan". Mozio hau Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne

Batzordean izapidatzea agintzen da. Mozio hori 2002ko apirilaren 23ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du enpresa pribatuekin hitzarmen bakarra sina dezan ezgaituen zentro publiko hitzartuetarako

GIZARTE GAIETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Gizarte Gaietako Batzordeak, 2002ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du enpresa pribatuekin hitzarmen bakarra sina dezan ezgaituen zentro publiko hitzartuetarako".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du enpresa pribatuekin hitzarmen bakarra sina dezan ezgaituen zentro publiko hitzartuetarako

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ezgaituentzako zentro publiko itunduetarako enpresa pribatuekin hitzarmen bakarra izenpetzea bultza dezan, zentro eta enpresa desberdinetako langileen artean gertatzen diren diskriminazioak desagertarazteko.

Hitzarmen berri horrek aintzat hartu beharko ditu lan eta lansarien baldintzak homogeenak izatea, eginkizunak argituko ditu, modu argian ezarriko ditu langile ratioak egoitzan dagoen pertsona bakoitzaren laguntza motaren eta minusbaliotasun mailaren arabera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren aurrekontu kredituak gai ditzan enpresa adjudikazio-hartzaileek aurretik aurreikusitako konpromisoak bere gain hartu eta bete ahal ditzaten.

F saila:
GALDERAK

Corellako hartzaindegiko postu-kopurua handitzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M^a TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak Corellako hartzaindegiko postu-kopurua handitzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak, Biltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahozko erantzuna jasotzeko.

Corellako hartzaindegian, Nafarroako Gobernuarena baita, izena emateko kanpaina egin ondoren, 45 haur onartu dituzte; 47, aldiz, itxaron zerrendan gelditu dira.

Hori horrela, hau jakin nahi da:

– Zer egin behar du Gizarte Ongizate Departamentuak hartzaindegiak har dezakeen haur kopurua handitzeko?

– Nafarroako Gobernuak aurreikusita al du 0 eta 3 urte bitarteko hezkuntza ezartzea herri horretan? Zein dira ez ezartzeko arazoak?

Iruñean, 2002ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Félix M^a Taberna Monzón

Galdera, Kultura Zuzendaritza Nagusiak Gazteluko Plazako indusketa arkeologikoari buruz emandako ebazpenei buruzkoa

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Kultura Zuzendaritza Nagusiak Gazteluko Plazako indusketa arkeologikoari buruz emandako ebazpenei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Askotarikoa-Batzarre Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren 184. artikularen eta hurrengoaren babesean, hurrengo galdera hauei erantzuteko eskatu du.

Kultura zuzendari nagusiak, apirilaren 26an, 495/2002 Ebazpena eman zuen. Horren bidez, Gazteluko Plazan aurkitutako aztarna arkeologikoak desmuntatzeko baimena eman zuen, salbu eta Erdi Aroko harresia. Ospe handiko zenbait aditu independente, ordea, erabaki horren erabat kontra agertu dira, uste baitute aztarna guztiak

bertan gorde behar direla. Hori horrela, hona gure galderak:

1.- Gazteluko Plazan eta Carlos III.a etorbidearen hasieran egiten ari diren indusketa arkeologikoa dela eta, zein da Kultura zuzendari nagusiak emaniko ebazpenek –guztiak– oinarri izan dituzten txosten teknikoek edukia?

2.- Gazteluko Plazan eta Carlos III.a etorbidearen hasieran egiten ari diren indusketa arkeologikoa dela eta, Kultura zuzendari nagusiak emaniko ebazpenek –guztiak– oinarri izan dituzten txosten teknikoak nork sinatu ditu?

Iruñean, 2002ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Galdera, Gazteluko Plazan aurkituriko hondakin arkeologikorik gehienak desmuntatzeari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak Gazteluko Plazan aurkituriko hondakin arkeologikorik gehienak desmuntatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Askotarikoa-Batzarre Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren 184. artikulua eta hurrengo babesean, hurrengo galdera hauei erantzuteko eskatu du.

Kultura zuzendari nagusiak, apirilaren 26an, 495/2002 Ebazpena eman zuen. Horren bidez, Gazteluko Plazan aurkitutako aztarna arkeologikoak desmuntatzeko baimena eman zuen, salbu eta Erdi Aroko harresia. Ospe handiko zenbait aditu independente, ordea, erabaki horren erabaitu kontra agertu dira, uste baitute aztarna guztiak bertan gorde behar direla. Hori horrela, hona gure galderak:

1.- Zer urrats administratibo eman ditu Nafarroako Gobernuak Kultura zuzendari nagusiak apirilaren 26ko 495/2002 Ebazpena emateko?

2.- Gazteluko Plazan aurkitutako aztarna arkeologikoak bertan gordetzea proposatu zuten ospe handiko zenbait aditu independentek; hala eman zuten ezagutzera Biltzarreko talde politiko gehienekin eta zenbait komunikabiderek eginiko bilera batean. Zergatik erabaki da, ordea, aztarna arkeologiko gehienak desmuntatzea?

Iruñean, 2002ko maiatzaren 17an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Galdera, eremu ez-euskalduneko herri batzuetan eskola-garraioa kentzeari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI M^a ISABEL ARBONIÉS BERMEJO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak eremu ez-euskalduneko herri batzuetan eskola-garraioa kentzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko osasun gaietarako eledun Isabel Arboniés Bermejo andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatzizko erantzuna jasotzeko.

Aurtengo ikasturtea bitarte, Allo, Deikaztelu, Sesma, Lodosa, Nazar, Murieta, Mirafuentes eta abarretatik Lizarrako Remontival ikastetxe publikoko D ereduko eskoletara joaten diren haur hezkuntzako eta derrigorrezko hezkuntzako ikasleek

herri horietan gelditzen den eskola garraioa erabili izan dute egunero.

Aitzitik, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak iragarri die 2002/2003 ikasturte-tik aurrera eta antolaketarako arau berria dela medio, eremu ez-euskalduneko herri horiek derrigorrezko eskola garraioaren antolaketatik kanpo gelditu direla. Horrek arazo larria eragingo die orain arte seme-alabentzat ikastetxea eta hezkuntza eredia berme guztiakin hautatu ahal izan duten familiei.

Horregatik guztiatik, hauxe jakin nahi dugu:

1) Zein dira hezkuntzaren aldetiko arrazoiak eskola garraioaren geldiuneak kentzeko orain arte zerbitzu osagarri hori izan duten herrietan?

2) Zein da Nafarroako Gobernuaren iritzia azken urte hauetan herri horietan funtzionatu duen garraio zerbitzua kendu izanari buruz? Haren ustez, derrigorrezko hezkuntza aukera berdintasunez jasotzea bermatzen al du horrek, eta eskualde hartan D ereduaren eskariak izan duen gorakadari erantzuten al dio?

Iruñean, 2002ko maiatzaren 20an

Foru parlamentaria: Isabel Arboniés Bermejo

Galdera, Ega ibaiaren ekosisteman presa artifizial bat egitearen ondorioei buruzkoa

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M^a TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak Ega ibaiaren ekosisteman presa artifizial bat egitearen ondorioei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du idatzizko erantzuna jasotzeko:

Orain gutxi, enbor, plastiko eta bestelakoez eginiko presa artifizial bat jarri zen Ega ibaian. Asmoa zen ura pilatu eta, ponpa baten bidez, Cabredoko idoira igotzea, erregatzeko ura izate-

ko. Horren ondorioz, ibaiaren zati bat lehortu egin zen.

SEPRONAK, ohartarazia izan baitzen, ponpa geldiarazi zuen, baina gelditze hori ez zen gauzatu harik eta Foruzaingoak zigilatu zuen arte.

Gertakari horiek horrela, hauek jakin nahi dira:

1.- Aipatu erasoak, zer ondorio izan ditu Ega ibaiaren ekosisteman?

2.- Zergatik jarraitzen du presa artifizialak ibaiaren ibilguan?

3.- Foruzaingoan jarritako zigilua hautsi al da mementoren batean?

4.- Riegos de Navarrak ba al zekien ponpa hori jartzekoa zela?

5.- Zein da ibai horrek behar duen ur emari ekologikoa, eta zer egin behar du departamentuak ur emari hori bermatzeko?

6.- Aurreikusi al da egin beharrekoak Eusko Jaurlaritzarekin koordinatzea?

7.- Egungo lehortea ikusita, eta horrelako eraso ekologikoak gertatzeko aukera oso handia denez, zer neurri hartuko ditu Ingurumen Departamentuak?

Iruñean, 2002ko maiatzaren 23an

Foru parlamentaria: Félix M^a Taberna Monzón

Galdera, krisian dauden enpresak salbatu eta berregituratzeko laguntzei buruzko Foru Legea oinarri hartuta eman diren dirulaguntza eta abalei buruzkoa

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak krisian dauden enpresak salbatu eta berregituratzeko laguntzei buruzko Foru Legea oinarri hartuta eman diren dirulaguntza eta abalei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko Carlos Cristóbal jaunak, Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeko eledunak, Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraikiz, krisian dauden enpresak salbatu eta berregituratzeko laguntzei buruzko galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Gobernuko ordezkariak idatziz erantzun diezazkioten.

Ekainaren 22ko 3/2000 Foru Legeak zenbait laguntza ezarri zituen krisian dauden enpresak salbatu eta berregituratzeko. Arau horren arabera, enpresak salbatzeko, abalak edo maileguak emateko aukera dago, eta enpresak berregituratzeko, berriz, funts galdurako dirulaguntzak, aurrerakin edo mailegu eta abalak, korrituetako hobariak, eta Foru Komunitatearekin dauden zorren zatiketa edo atzerapena.

1.- Foru Lege horretako II. kapituluaren aipatutako neurrien babesean emaniko abal eta maileguek zenbat egin dute 2000 eta 2001eko ekitaldietan?

2.- Aipatutako foru legeko III. kapituluaren enpresak berregituratzeko aipatzen diren laguntzak direla eta, zenbat egiten dute 2000 eta 2001eko ekitaldietan emaniko dirulaguntzek?

3.- Zenbat egiten dute aipagai dugun foru legeko III. kapituluaren babesean emaniko aurrerakin, mailegu, abal eta korrituetako hobariak?

Iruñean, 2002ko maiatzaren 24an

Foru parlamentaria: Carlos Cristóbal García

Galdera, ikerketarako eman diren dirulaguntza eta diru aurrerakinei buruzkoa

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ikerketarako eman diren dirulaguntza eta diru aurrerakinei buruz egindako galderaren biderape-na onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parla-mentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parla-mentuko Taldeko Carlos Cristóbal jaunak, Ekono-mia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeko eledu-nak, Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraikiz, gure erkide-goan ikerketarako ematen diren laguntzei buruzko galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Gober-nuko ordezkariak idatziz erantzun diezazkioten.

Azaroaren 20ko 360/2000 Foru Dekretuak ikerkuntza eta garapenari eta berrikuntzari lagun-tzak emateko araubidea ezarri zuen; hauek ager-tzen ziren dekretuan: funts galdurako dirulagun-tzak, korriturik gabe itzuli beharreko aurrerakinak, eta maileguen korrituetarako dirulaguntza.

1.- Zenbat egin dute funts galdurako dirulagun-tzek 2001eko ekitaldian? Zenbat proiekturi aplika-tu zaizkio?

2.- Zenbat egin dute, aipatu ekitaldian, korritu-rik gabe itzuli beharreko aurrerakinek eta maile-guen korrituetarako dirulaguntzek? Zenbat izan dira laguntzak izan dituzten proiektuak?

3.- Modu batera edo bestera Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak jaso dituzten proiektuetatik, zenbatek egin dute porrot eta, beraz, dekretuaren 5. artikuluekin bat, lortutako emai-tzetatik zein pasa dira Nafarroako Gobernuaren jabetzara?

Iruñean, 2002ko maiatzaren 24an

Foru parlamentaria: Carlos Cristóbal García

Galdera, iruzur fiskalari buruzkoa

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko maiatzaren 27an egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak iruzur fiskalari buruz egindako galderaren bidera-pena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parla-mentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parla-mentuko Taldeko Carlos Cristóbal jaunak, Ekono-mia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeko eledu-

nak, Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraikiz, iruzur fiskalari buruzko hurrengo galderak aurkeztu ditu, Nafa-rroako Gobernuko arduradunek idatziz erantzun diezazkioten.

Idatziz eginiko galdera bati emaniko erantzun-ean, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Oga-sun kontseilariak zioen, 2000ko martxoan, 1997tik ez dela kalkulu berririk egin Nafarroako iruzur fis-kalari buruz.

Hori horrela, hona galderak:

1.- Egin al du berriki Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuak gutxi gorabeherako kalkuluren bat jakiteko zenbat izan den, gure erkidegoan, aurreko ekitaldian azalera-tutako diru beltza?

2.- Ba al da berriki eginiko kalkuluren bat Nafarroan dagoen iruzur fiskalari buruz?

3.- Aurreikusi al du departamentuak nolabaiteko neurririk iruzur fiskalaren jazarpeneko? Azken hori dela eta, zein izan dira 2001erako ezarritako helburuak? Bete al dira? Zein dira 2002rako ezarritako helburuak?

4.- Egiten al du zure departamentuak nolabaiteko elakarlanik bestelako tributu administrazioekin, alderatzeko, BEZaren eta Sozietateen gaineko zergaren dirubilketan, enpresen negozio-zifra erlatiboa, Hitzarmen Ekonomikoaren arabera tributazio sistema hori erabiltzen duten enpresetan?

Iruñean, 2002ko maiatzaren 24an

Foru parlamentaria: Carlos Cristóbal García



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,14 »	